

## 9. Urtzi Ihitza: *Euskararen Jatorri Aurkitua*



Urtzi Ihitza Sodupen jaioa da 1959 urtean. Euskara irakasle, idazle eta elkarte batzuetan dinamizatzailea izan da. Liburu hauek idatzi ditu:

- |   |  |
|---|--|
| Euskaldunok independentziaz euskal burujabetzara. 1987.     | Euskara eta montañesa enkartazioan. 2005.                                |
| Om kixmi. Urtziren poesiak. 1991.                           | Euskararen jatorria aurkitua. 2005.                                      |
| Euskal herriaren konstituzioa. 1997.                        | Apiyós montañesis. 1997  |
| Europako nazioak. 1998.                                     | Concencia d'íidintidá cantabriegua. 1999.                                |
| Enkartaziorako autonomia estatutuaren aurreproiektua. 1998. | Dicionariu del cantabrismu. 1999.  |
| Euskalduntasunarekiko aurkikuntza. 1999.                    | Escomenciui de garamática cántabra. 1999.                                |
| Autopisten dohaintasuna eta euskalduntzea. 1999.            | Costituición del país cántabru. 1999                                     |
| Hiztegi esoterikoa. 1999.                                   | Dicionariu cántabru. 1999.   |
| Enk-enc. 1999.  | Acurrie de puisía atual cántabra. 2001.                                  |
| Euskararen hiztegia. 1999.                                  | Tarja de nombris cántabros. 2002   |
| Euskal herriko sinboloen liburua. 1999.                     | La costruición nacional del pueblu cántabru. 2003.                       |
| Ihizatarron arazoak (ihitz, itza, iza...).                  | Atitudes anti la lingua cántabra. 2004.                                  |
| Onomatopeien altxorra. 2000.                                | Metodu cinciyu pa deprender la lingua cántabra. 2005.                    |
| Euskaldunia. Euskaldunon erakunde politikoa. 2000           | Euskal nortasunaren kontzientza. 1999.                                   |
| Enkartazioaren nortasun politikoa. 2001.                    | Euskal izendegi bateratua. 1999.   |
| Aro berria eta eraikuntza nazionala. 2001.                  | Identifikazio moduak mundu zabalean. 2001.                               |
| Euskararen hiztegi etimologikoa. 2002.                      | Eskualde bereziak eta eraikuntza nazionala. 2002.                        |
| Euskal herriaren partidu politikoak. 2002.                  | Ena. 6 urtetako kronika. Erabiltzeko gida. 2003                          |
| Euskal herria zifratán. 2002.                               | Euskal herritartasunaren atarian. 2004.                                  |
| Kontzientziaren iraultza. 2003.                             | Euskal nortasunaren hiztegia edo eraikuntza nazionalaren pedagogia. 2005 |
| Vocabulariu encartáu edo hiztegi enkartaua. 2003.           |  |
| Enkartazioaren euskal toponimia. 2004.                      |  |

Harremanetarako: [lemuria@euskalnet.net](mailto:lemuria@euskalnet.net)



## Nondik gatoz euskaldunok?

1997 urteko udagoiengan, nortasunaren kontzientzia lantzeari ekin genionean, euskaldunontzako nortasuna agiria sortuz, ba geneukan inguruan ere euskaldunok nortzuk ginen ikertzeko halako gogo. Gaur, zortzi urte luze eta emankorren ondoren, euskaldun zein herritar bezala ehundaka alditan identifikatuak izan ezker, hasiera emanen diogu bilaketa beraren beste arlo bezain garrantzitsu bati:

Nortzuk gara euskaldunok? Nork-noiz-nola-non sortua da euskara? Zein da herri bezalako gure funtzioa? Nola ez gara desagertu hainbeste herri indartsuago guregandik igaro ezker? Noiz desagertarazi egingo ditugu gure gorputzongandiko eta izaki guztiengandiko indarkeria eta biolentzia guztiak? Zein da izakiaren jatorria? ....?

Galdera guzti hauek erantzuten saiatu izan naiz hurrengo orriotan, den denek euskararen jatorriarekin zer ikusirik zuzen zuzena dutelakoan:

Hizkuntzalaritza konparatua balio izan zaigu gutxienez euskara bezalako hizkuntzarik ez dagoela jakiteko. Orain arte denak izan dira beharbada-k, agian-ak, balizko-ak, posibilitateak eta "litezkeak". Eta hala ere ongaria da beste hizkuntzekin erkatzea, herri guzti horiek hobeto ezagutzearren.

Beste informazio iturritara jo behar da, zeren orain arte ez ba gara aurkitu, ez ba gaituzte aurkitu erabilitako metodoez, beste bide batzuk erabili beharko dira, gutxienez ondorio ezberdinetara heltzearren.

Beraz, nire bilaketak oinarri hauek ditu:

1. Orain gutxi arte, 1989, ez zigun inork gure jatorria deskubritu.
2. Euskarak ez du, jatorrizko harremanik Lurrean hitz egiten diren beste hizkuntzekin, askotan baieztatu dugun bezala, sendi bakarra osatzen baitu. Horregatik ere zeresan handia dauka hizkuntzen jatorriarekin, eta ondorioz *sanskrito* hizkuntzarekin, euskara bera baino zaharragoa aurkitu ditudan bi hizkuntzetako bat. Bestea *irdin* deitzen da.
3. Euskararen jatorriarekin topatzeko, Lur honen gaineko izaki biziaren jatorriaren beraren bila jartzea beharrezkoa da.
4. Milioika urteen zehar transmititu izan dugun-diguten gehiena ez dator bat hasierako jakintzarekin: Ezagumendu edo zientzia ofiziala gezur handi baten gainean eraikia da, bestela ezin ulertuzkoak dira adibidez izarbel txiki honetan dauden 38 gerra, Euskal Herrikoa barne.
5. Hala ere, gezur horren erantzuleak denok gara, azken bizitza honetan edo aurreko askotan ere esku hartu dugulako. Denoi dagokigu gure buruak barkatzea besteenak ere barkatzen ikasten dugun bitartean. Orain ez ba da noizbait ikasiko dugu, maitasunak eta bakeak ez baitaude presarik, beti noizbait gertatzen direlako.
6. Norberaren kontzientzian aurrera egiten dugun neurrian, herri, mundu, unibertso bezalako kontzientzian ere aurrera egiten dugu eta horrela bakarrik helduko gara amaierarik gabeko kontzientzia edota maitasunera.
7. Nondik gatozen deskubritzen dugun neurrian jakingo dugu pertsona bezala eta herri bezala ere nora goazen: orduan hasten da -ez lehenago- euskal gatazka deiturikoa desagertzen.
8. Unibertso osoan -beraz Euskal Herrian ere- ez dago kasualtaterik, denak dauka zergatia. Norberari dagokio interesatzen zaizkion zergatiak deskubritzea.



9. Etengabeko barkamena bidezkoa izatearekin batera beharrezkoa da, euskararen jatorriaren historia lanbrotsuan eguzkia atera dadin.
10. Azkenik, denok daukagu arrazoiaren zati bat, denon artean osatzen dugu egia handiago bat. Egin dezagun bidea elkarrekin, ondo esana ondo hartuz eta txarto esana, barkatuz.

Proposatzen dizuedan bidaia, nire buruaren jatorriaren bilaketaren bidaia bera da, euskararen jatorriaren bila neurri handi batean.

## Euskalbidaidegoa

Aztertu ditudan milaka hitzetatik 300 bat jo izan ditut errozkotzat, hau da, euskararen beraren berezko bilakaeratik sortuak, 300 horietan jatorria bera datzalakoan nago oso, eta hona hemen giltzarritzat hartzen ditudan horietako 10 bat, bizpahiru oraindik euskararen txertatuta ikusi ez ditudan arren:

- **BEGI** AurBEGIko -aurreko bi egiko- organu gehienei izena eman eta bi-rekin harremantzen dudana neurrian: 50 hitz baino gehiagoren erro bizia.
- **BURU** Goikaldea izatearekin batera, izakiongan gorputz fisiko osoaren zain eta atal guztiak lotzen dituen organua. 100 hitz baino gehiagoren erroa.
- **ESKU** Organu hau geneukala aurkitzea kristontzat baino gehiago izan zelakoan nago. 130 hitzen etorki. **ESKUAL** Euskara, Euskaldun, Euskal Herria. **EUSKARA** Euskaratzaile, euskarazaintza... . **Eskuan eta eskura dugu euskara hitzaren jatorria.**
- **GAL** Eusgal, Eusgaldun, Eusgal Herria, Galdurotz, Gallipientzu, Galdeano, Galdames, Portugalete, Galindo, Punta Galea, galdera.... Gehiago aztertu behar den arren.
- **HERRI** Herkide, hertzale, herritasuna, herritartasuna... . Hasierako H hori K izan zelakoan.
- **HITZ** Hiztegi, hiztun, hitzontzi, hizlari, hizki, hizkitegi... . Kitz? Hats, hatz, hots eta ahotsekin harremandua.
- **HIZKUNTZA** Hizkuntzalari, hizkuntzalaritza, hizkuntzategi...
- **LUG** Lugo, Lugoneak, Lux-lucis, luz, Luga...
- **MAN** Gizona, gogoa, mandala, mantram...
- **MEN** Dolmen, menhir, Mena, Menagarai, mendi...
- **OM** Oma, Omen, Aum, Amen, Hemen, Auen.

Horrela hasierako euskarara heltzen ari gara.

Berdin egin dut berezko doinuekin -onomatopeiak-. 1.000 inguru egonda 140ren esanahia azaleratzen saiatu izan naiz, jatorri batura heltzeko xedez. Bukatu gabe dagoen lana.

Eskema edo ordena hau jarraitu izan dut:

OM – IRDIN – SANSKRITOA -- IRRINTZILARITZA ETA MANTREN ZIENTZIA – ONOMATOPEIAK -- HIZKIEN ESANAHIA -- ERROTIK AURRERA -- HIZTEGI ETIMOLOGIKOA -- LEKU IZENAK-TOPONIMIA -- JOAN ETORRIA-HISTORIA – EUSKAL -- EUSKARA HITZAREN ALDAKIAK -- :



IRRINTZIAK, euskararen etorkia  
 BEREZKO DOINUAK, onomatopeien erroa, euskararen jatorria  
 ERROzko 300 hitz, euskararen jatorria  
 HIZKIAK, letren esanahia, euskararen erroa.  
 ESKU, eskuera, euskara hitzaren jatorria  
 LEKU IZENAK, Historiaren islada.  
 JOAN ETORRIA, Historia, ibilbidearen lekuko.  
 EUSKAL, 10 giltzarrietako bat.  
 EUSKARA HITZAREN ALDAKIAK, Etorkizun hurbil ziurra.

**HARIA...** Zarata, doinu, musika eta hizkuntzaguztion jatorriaden OM-tik, irdineraigarotzen-gara, etagerosankritoerara, hemetik seimil hizkuntzetara eta euskararak sendibakarra osatzenduenaldetik, izarbelbateandaukagutarikobakoitzak jatorria, euskaldunok Orion konstelazioan, bertatik lortuzuteneuskara, Omaetaharitzapasatzea. Gernikaldeko Ereñotzarmendikoa tedimentsionaletik Lurrerasartuzeta artzaiak bilakatu zirrintzilaritzan etamantrenzientzian maisuizaten, onomatopeiak berenganatzen, hizkien esanahiak sortzen, errotik aurrerakohiztegi etimologiko aloratzen, lekuei izenezak jartzen eta historia ehuntzen beste herri askok erekin batera. Euskal erroa, euskarahitzaurrez jantzen zuten bukera irik gabeko jakintzagorenaren zati altxordunabilakatzen... .Gaurko egunarte.

### Ondorio batzuk

Azken 600 urtetan edo harremandu izan gaituzten herri eta lekuen berri ematen da hemen:

1. Armeniera. Amen. Omen. Hemen. Kaukasoko zirrikitu irekia utzi dugu.
2. Berebereen 3 banderetako batek ortzadarraren 3 kolore dauka ordena berean: itsaso Mediterraneoaren urdin garbia, Saharako zati handi batzuk oraindik diren belardien ederraren berdea eta basamortuaren hori urretsuaren disdira. Euskal Herri Berriaren euskal ikur berrira hurbiltzen ari dena.
3. Bibliako Babelgo 72 hizkuntzetako bat izan daiteke euskara, orduko guztiak edo gehienak desagertu ziren neurrian eta hizkuntza denak gaur egun ere eguzki sistema honetako maisu kosmikoez edo anaia nagusiek egiten duten sanskritoetatik datoze-lako.
4. Bordeletik Soriaraino eta Kantabriatik Mediterraneoarainoko euskara hitz egin izan dela konprobatu dugulako, toponimia eta historiaren arabera.
5. Etruskoak estatu italiarreko "euskaldunak" dira, gure funtzioa betetzen dute bertan.
6. Europako hizkuntzarik zaharrena, gaur behintzat bai.
7. Gaztelaren ama baino, aitaren sendikoa, latina eta euskara –6.000 hizkuntza gehiagorekin batera- sanskritoeraren ondorengotzat dauzkagun neurrian.
8. Gaztelaren semea. Gaztelau batzuentzat bai, zeren eta beren hizkuntzaren zabalpen bortxatua baino ez dute ezagutu eta gero ezagutu dute euskara, jakina, semea izan behar zen!
9. Hizkuntza sakratu eta inizatuentzat ere dugun neurrian guztiz antzinakoa da.
10. Iberoak, gizajoak nonbait biziko ba lira!
11. Kantabria. 3.200 urtetako auzokidetasunak eman du 400 urtez konfundituak izateko.
12. Kaukasoko herri batentzat zirrikitu bat uzten dugu.
13. Keltak ez gara begi urdindunak eta hile horiak ez garenok baina batzuk bazarete, eta euskaldunak ere.



14. Ketxuekin bai 7 koloretako bandera osoa konpartitzen dugu 1986tik, haien hizkuntza ikasi dezakegun bitartean.
15. Lau baserritan galdutako mintzaira "izatetik" hizkuntza oso bat berreskuratura.
16. Ligureak estatu frantsesa eta italiarraren arteko Alpeak mendikatearen azpian. Euskaldunok estatu frantsesa eta espainolaren arteko Pirinioak mendikatearen azpian.
17. Munduko hizkuntza bizirik zaharrena izatearen ohorea nahi genuke euskararako edo somatzen diogu euskarari. Ikusiko dugu..
18. Nafarroan sortua ez, baina lehendabizi hitz egina Baztan aldetik, Gernikaldeko Ereñotzarretik bezala bai, eta orain 2000 urtetik hona ere bai.
19. Penintsula iberiar osoan hitz egindako hizkuntza: Katalunya, Aragoi, EH, Soria, Burgos, Errioxa, Jaengo Navas de Tolosan Antxo Azkarrarekin 1212an, Avilako Mingorrian eta Eskorialen 1480-1500. inguruan, Graná-(da)n 1500 inguruan Errege Katolikoekin..., baina gehiagorik ez.
20. Petengo indioak Guatemalan. Kolatu zaigun leienda eder bat.

...

### Laburpena (ipuina)


Euskararen jatorri aurkituarekin topatzeko lur honetako eta amaigabeko unibertso osoaren gizakumearen jatorriaren bila joan behar gara, jatorria bera, jaio eta etorria baita.

Etengabeko unibertsoan den dena dago higiduran, bukaerarik gabeko higidura horrek bibrazioa sortzen du, bibrazio horretatik doinua eta doinua oommmm amaigabe bat da: hortik bilakatuak dira irdin, sankritoa eta bestelako hizkuntza guztiak, euskara barne. Baina hizkuntzok berauek egiten dituzten herriekin batera aztertu behar dira.

Horrela, energia, jatorria, filosofia, yoga, OM, jainkoa..., maitasuna azken buruan, dena BAT bihurtua da.

.....OOOOOOOOOOOOOOOMMMMMMMMMMMMMMMMM.....

Kumulu, unibertso, kosmos, galaxia, konstelazio eta eguzki sistema, izar eta izarbel guztien mugimendu etengabearen bibrazioaren doinu amaigabea: **telepatia**, esferetako musika, hots, zarata, burrunba eta geroko hizkuntza eta abesti ororen jatorria



EKHI(N)TZA: AD(H)ITZAREN SORRERA ETA BILAKAERA:  
JOAN ETORRIA – HISTORIA ETA BESTE HERRIAK  
HIZKUNTZALARITZA (EUSKARALARITZA) KONPARATUA  
ESOTERISMOA(N).

GAUR: ZU - NI -ZU TA NI- ZUTUNIK

AUM OM OMA OMEN AMEN HEMEN AUEN  
AUM OM OMA OMEN AMEN HEMEN AUEN  
AUM OM OMA OMEN AMEN HEMEN AUEN  
AUM OM OMA OMEN AMEN HEMEN AUEN  
AUM OM OMA OMEN AMEN HEMEN AUEN  
AUM OM OMA OMEN AMEN HEMEN AUEN  
AUM OM OMA OMEN AMEN HEMEN AUEN

